

6. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak hainbat funtsezko jarduera eraman behar ditu aurrera, zerbitzuak funtziona dezan eta bezeroei beraien beharrak asetzeko. Jarduerak hurrekin eta gurasoekin egingo dira, eta hauek enpresa aurrera ateratzeko egingo dira.



Dinamikak eta tailerrak egitea izango lirateke gure funtsezko jardueretako batzuk, jarduera hauek, esaterako, Euskal mitologiari buruzko ipuinak eta txangoak, euskal kulturarekin zerikusia duten eskulanak, esaterako, eguzkiloreak kartulinekin, lauburu bat egitea collage moduan... Horrez gain, euskal abesti saioak eta txontxongilo tailerrak ere egingo genituzke.

1.irudia

Bestalde, gurasoei eta bertako hezitzaileei formakuntza desberdinak eskainiko dizkiegu, adibidez, haurren elikadurari buruzkoak, haurren motrizitate garapenaren ingurukoak, haurren sexualitateari buruzkoak, emozioei eta KEBei inguruko hitzaldiak... Horrez gain, gurasoei bertan hustuketa egiteko aukera ere emango zaie, beraien kezka, zalanza eta beharrei erantzunez.

Azkenik, sareen kudeaketa ere egingo genuke, esaterako, gure zerbitzua ezagutzera eramatea, Instagrama eguneratua eramatea gure zerbitzuaren informazioarekin, webgunean beharrezko informazioa txertatzea eta eguneratua eramatea, kontsumitzaileei erakartzen saiatzea. Horrez gain, gurekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun plataformak aktibo izatea, esaterako, WhatsApp-ak erantzutea eta gmailak erantzutea. Honen bidez, bezeroek beraien zalantzak argitu ahal izango dituzte, eta harremanetan egoteko aukera izango dute.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

1 irudia→ 2014.07.08 / 08.07.2014 “Euskal Mitologia - Mitologia Vasca”. (s/f). Pinterest.

berreskuratuta 2026eko urtarrilak 9 <https://es.pinterest.com/pin/23503229291527080/>